

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

4377

AGINDUA, 2022ko urriaren 5ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez 2022-2023 kanpainari begira egokitzen baita urtarrilaren 26ko 26/2019 Dekretua, mahastiak berregituratzeko eta birmoldatzeko laguntzei buruzkoa.

Europar Batasunak merkatuaren antolaketa bateratu bat (MAB) ezarri du mahastizaintzaren eta ardogintzaren sektorean, Batasuneko sektorearen ekoizpena lehiakorragoa izan dadin, eta ardoak, berriz, kalitate hobekoak. MAB horrek hainbat laguntza-neurri dakartza berekin, tartean, mahastiak berregituratzeko eta birmoldatzeko laguntzak.

Espainiako Estatuan zenbait arau eman dira argitara; horietatik azkena da 1363/2018 Errege Dekretua, azaroaren 2koa, Espainiako mahastizaintzaren eta ardogintzaren sektoreari 2019-2023 aldian laguntza-neurrien programa eskaintzekoa. Azken aldiz, otsailaren 8ko 112/2022 Errege Dekretuak aldatu du.

Euskal Autonomia Erkidegoan, 26/2019 Dekretuak (otsailaren 26koa, mahastiak berregituratzeko eta birmoldatzeko eragiketegi Europar laguntzeko neurria garatu eta aplikatzekoa) ezarri zituen mahastiak berregituratzeko eta birmoldatzeko laguntzen Europako erregelamendua eta Estatuko oinarrizko araudia garatu eta aplikatzeko arauak.

Dekretu horren azken xedapenetako lehenengoan, nekazaritza-arloko sail eskuduneko titularrari ahalmena ematen zaio, agindu baten bidez, dekretu honen eranskinen edukia alda dezan, aldaketa horiek Europar Batasunaren arauen edo estatuko oinarrizko araudiaren ondorioz exijitzen direnean; lehen aipatutako dekretuan jasotako datak eta epeak alda daitezke.

Laguntza-programa honetan parte hartzen jarraitu ahal izateko, kontuan hartuta Europar Batasuneko erregelamenduan eta Estatuko oinarrizko araudian egindako aldaketak eta haiek egokitzeko eskakizuna, eta otsailaren 26ko 26/2019 Dekretuaren azken xedapenetako lehenengoa betez, eranskinak egokitu behar dira.

Hori dela eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Araudi aplikagarria.

Agindu honetan xedatutakoaz gain, araudi erregulatzailer honen bidez arautuko dira 2022-2023 kanpainan mahastiak berregituratzeko eta birmoldatzeko eragiketetarako laguntzak:

a) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1308/2013 (EB) Erregelamendua; Batzordearen 2016ko apirilaren 15eko 2016/1149 (EB) Erregelamendu Eskuordetua, eta Batzordearen 2016ko apirilaren 15eko 2016/1150 (EB) Betearazpen Erregelamendua.

b) 1363/2018 Errege Dekretua, azaroaren 2koa, Espainiako mahastizaintza eta ardogintzaren sektoreari laguntzeko 2019-2023 programako neurriak aplikatzekoa.

c) 26/2019 Dekretua, otsailaren 26koa, zeinaren bidez garatzen eta aplikatzen baita mahastiak berregituratzeko eta birmoldatzeko eragiketetarako Europako laguntza-neurria Euskal Autonomia Erkidegoan, Europako araudiak edo Estatuko oinarrizko araudiak eragiten ez dion guztian.

d) Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek abian jartzen dituzten deialdiak, zeinek bere aldizkari ofizialean argitaratuko baititu.

Bigarrena.– Diruz lagunduko diren ekintzak eta dirulaguntzen zenbatekoak.

1.– 2022-2023 kanpainari begira, otsailaren 26ko 26/2019 Dekretuaren I. eranskina aldatu egingo da, beraz, eragiketa bakoitzean hauta daitezkeen berregituratze- eta birmoldatze-ekintzak, horien ezaugarriak eta diruz lagundu daitezkeen kostuak (otsailaren 26ko 26/2019 Dekretuaren 3.1 artikuluan daude jasota), agindu honen I. eranskinean jasotakoak izango dira, unitate-kostuen baremo estandarren metodoari jarraikiz (gauzazko ekarpenen balioa barne), eta azaroaren 2ko 1363/2018 Errege Dekretuaren 37. artikuluekin bat.

2.– Berregituratze- eta birmoldatze-gastuen parte kalkulatuzko, azaroaren 2ko 1363/2018 Errege Dekretuaren 37.4 artikuluan zehazten den gehieneko ehunekoa aplikatuko zaie kasuan kasuko zenbatekoei.

Hirugarrena.– Lehentasun-irizpideak.

2022-2023 kanpainari begira, otsailaren 26ko 26/2019 Dekretuaren III. eranskina aldatu egingo da, beraz, lehentasun- eta haztapen-irizpideak (otsailaren 26ko 26/2019 Dekretuaren 12. artikuluen 2. eta 3. zenbakietan daude jasota) agindu honen II. eranskinean jasotakoak izango dira.

Laugarrena.– Errekurtsoak.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuari, hilabeteko epean. Bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean. Kasu bietan, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko dira epeak.

Bosgarrena.– Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriaren 5a.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

2022ko urriaren 11, asteartea

I. ERANSKINA

MAHASTIEN BERREGITURAKETA ETA BIRMOLDAKETA, EKINTZAK ETA DIRULAGUNTZA-ZENBATEKO UNITARIOAK

Jarduera	Ekintza	Dirulaguntza-zenbateko unitarioa	
A) Mahasti-birlandaketak	Erauztea (mahats-orpoak jasotzea barne)	1.347 €/ha	
	Lurzorua prestatzea	1.691 €/ha	
	Desinfektatzea	2.930 €/ha	
	Harrigabetzea	1.259 €/ha	
	Lurra berdintzea	1.736 €/ha	
	Zapaldatzea edo dauden zapaldak makina egokiekin hobetzea	19.358 €/ha	
	Zapaldatzea, harresiarekin (pendiza > % 30)	23.952 €/ha	
	Landareak eta landaketa: Landaketa mekanikoa (laser edo GPS bidezko landagailua) edo eskuzkoa (zuinkatzea, markatzea, landatzea, estaltzea, ziriak jartzea) eta landarea	1,62 €/landare	
	Landarea inguratzen duten plastikozko hodiak; landatu berritan, untxien aurkako babesa dira (jartzea eta eusteko haga edo barne)	0,48 €/unitate	
	Eramate-sistemak (jartzea barne)		
	Horma-sarea: Materiala eta horma-sarea jartzea	4.362 €/ha	
	Oholesia: Materiala eta oholesia jartzea	5.310 €/ha	
	Banakako goratzea: Materiala eta zutoina jartzea	2,90 €/unitate	
B) Mahasti-birmoldaketak	Gaintxertaketa: Mentuak prestatzeak eta txertatzea	1,08 €/unitate	
C) Mahasti-kudeaketako teknikak hobetzea	Basotik horma-sarera edo beste eramate-sistema batera aldatzea: (hagak ezartzea, lotzea, besoak moztea, zauriak tratatzea eta hondarrak kentzea)	1.353 €/ha + eramate-sistema, jartzea barne	

2022ko urriaren 11, asteartea

II. ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LEHENTASUN- ETA HAZTAPEN-IRIZPIDEAK

Lehentasun-irizpideak	Haztapena
Nekazari gaztea: eskabidea aurkeztu den urtean 40 urte ego gutxiago dituzten eskatzaileak	10 puntu
Titulartasun partekatuko ustiategiak	10 puntu
Eskabideak taldean aurkeztea	3 puntu
Nekazaritza ekologikoari atxikitako ustiategiak Eskabidea egin duten unean atxikita ez badaude, azalera osoa edo zati bat ekoizpen ekologikora bideratzeko konpromisoa hartuko dute	7 puntu
Ekoizpen integratuari osorik edo zati batean atxikitako ustiategiak edo nekazaritzako eta ingurumeneko neurriren bati atxikitako ustiategia	4 puntu
Mahasti-sail osoaren gutxienez % 10ean 30 urtetik gorako mahasti zaharrak dituzten ustiategiak Mahasti horiei eusteko konpromisoa hartuko dute	4 puntu
Titular bakarreko ustiategiak, titularra emakumezkoa bada	3 puntu
Pertsona juridiko baten titulartasuneko ustiategiak, pertsona juridiko horren gaineko kontrola emakumezko baten edo batzuen esku badago	3 puntu